

LEHENENGO ARIKETA. (5 puntu)

Ariketa honetan gai baten inguruko 5 testu labur (1-5) dituzu alde batetik, eta paragrafoek jasotzen dutena islatzen duten (A-H) esaldiak edo hitzak bestetik. Zuk taulan parekatu behar dituzu. *0 zenbakia* adibidea da eta bi esaldi sobran daude.

Euskal sinboloak: euskal makila

0. _____ C _____

Euskal Herriko sinbolo eta kondairen artean hurrengo hauek daude:

- Eguzki-lorea: Kardu Silvestrearen lore lehorra Carlina acaulis irudikatzen duen ikurra da.
- Gernikako Arbola: Gernikako Arbola Gernikako udalerriko (Bizkaia) Batzar Etxearen aurrean kokatuta dagoen haritza da, eta zalantzarik gabe euskal sinbolo unibertsalena da.
- Ikurriña: Ikurriñak ehun urte baino zertxobait gehixeago ditu. Hala ere, gainontzeko Europako banderekin aldentuta, nahiko historia laburra du.
- Laiburua: Laiburua beso kurboak dituen gurutze bat da, azken urteotan sinbolo modura oso modan jarri dena. Kutxatan, armairuetan, ateburuetan, hilobietan, hilerrietan, zenotafioetan, lepokoetan urre zein zilarrean, etab. ikus ditzakegu gaur egun.
- Euskal makila: Euskaldunon ohiko bastoiari deitzen zaio euskal bastoia edo makila.

1. _____

Euskaldunon ohiko bastoiari deitzen zaio euskal bastoia edo makila. Garai batean defentsarako arma zen. Animaliak ehizatzeke edo arrisku egoeretan defendatzeko baliabide egokia zen makila. Baina denborak aurrera egin ahala, makila lanabes ere bihurtu zen.

2. _____

Abereak mugiarazteko erabiltzen da gaur maiz. Hala eta guztiz ere, baditu bestelako erabilerak ere: batetik ibiltarien laguna da eta bestetik, neurtzeko tresna bezala ere erabili izan ohi da.

3. _____

Mizpira egurraren bidez, egurraren gainean zuloak egin eta sortutako zaurien bidez, makila apaintzen da. Hala eta guztiz ere, mizpirondoaren eskasia dela medio, askotan, honen ordez, gaztainondoa erabiltzen da. Euskal makilak, ordea, baditu bestelako zenbait elementu. Eskutokia da horietako bat, zenbaitetan idien adarrez egina dagoena. Eztena, berriz, kirtenaren azpian ezkutaturik egoten den altzairuzko osagaia da.

Txintxolak larruzko kirtinari heltzen dio eta era berean, eskutokiari tope egiten dio. Txintxolan norberaren atsotitz edo esaerak jarri ohi dira, hau da, eskaintza bereziak. Makilaren kirtena, berriz, antxumearen larruz estaliriko hodia da. Ohorezko makilak, ordea, zilarrezko kirtena izaten du. Aurretik aipaturiko mizpira egurra forma bereziz horniturik egoten da; izan ere, aurrez labanaz zauriak egiten zaizkio.

Normalean, makilaren behealdean beste txintxola bat ezartzen zaio egurrari eta altzairuzko punta darama lurra ukitzeko.

4. _____

Euskal makila egiterako orduan, bi bideri jarraitu behar zaie. Batetik, egurra prestatu behar da. Makila sortu ahal izateko, egurrari hainbat zauri egiten zaizkio azalean labana batez. Sendatzean, zuhaitzak berak isuritako izerdiak forma ikusgarritz hornitzen du egurra. Moztutako adar hori lantzen du gero artisauak. Ondoren tailerreko lana dator. Izan ere, egurra prestatu ondoren, egurrari zenbait elementu gehitu behar zaizkio lantegian. Makilak txintxola bat darama behealdean, eta goialdean, berriz, larruz estalitako hobi baten altzairuzko eztena dago. Osagai hauek ere artisauak eskuz landu behar izaten ditu.

5. _____

Egun makilak beste leku bat hartu du mundu osoan, eta euskal gizartean bereziki. Euskaldunon historian toki garrantzitsua bete du makilak, eta Euskal Herriko kulturari, hainbat joko, kanta eta erritoren protagonista bihurtu da. Euskaldunon laguntasunaren eta mirespenaren sinbolo bihurtu da. Euskal alkateek eta lehendakariak ere makilak jasotzen dituzte oraindik, euren agintearen seinale. Euskal Herrira etorri diren hainbat pertsona garrantzitsuk ere jaso du makila hemengo agintarien opari gisa.

Hiru.com (moldatua)

Esaldiak

- A. Erabilera.
- B. Euskal makila euskal gizartean eta munduan.
- C. Euskal sinboloak.
- D. Historia.
- E. Kondaira.
- F. Osagaiak.
- G. Prozesua.
- H. Zer da Euskal makila?

Testua	0	1	2	3	4	5
Esaldia	C					

BIGARREN ARIKETA. (5 puntu)

Ondoren, Argia aldizkariko testu bat duzu. Hurrengo orrialdean 5 (6-10) galdera dituzu. Aukeratu erantzun zuzena (a, b, c). 0 zenbakia adibidea da.

Nola bizi gehiago eta hobeto?

Bizitzeak zahartzen gaitu eta ez gara hilezkorrak. Horixe izaki guztien oinarrian dagoen egia. Seguraski gehienek ez lukete euren bizitza artifizialki luzatu nahi, baina baldintza sozial, fisiko eta psikologiko egokiak emanez gero, nork ez luke gehiago bizi nahi?

Arratoiena lau urte, karakolena hamabost, lehoiena 40, hontzena 65 eta gizakiena 70 inguru. Hauek dira bizi itxaropenaren batez bestekoak. Espezie batetik bestera desberdintasunak daude, baita gizakien artean ere, herrialde garatu eta ez garatuen artean, gizon eta emakumeen artean eta familia batetik bestera ere. Dena den, guztiok dugu amaiera data. Materiaz eginak gaude eta materia guztiak denborarekin hondatu egiten dira.

Horrek badu azalpen zientifikoa. Gorputza osatzen duten ehunak zahartu egiten dira, organo horiek berritzeaz arduratzen diren zelulak ere zahartu egiten baitira. Zergatik? Bi arrazoi nagusi daude: kanpo erasoak (kutsadura, estresa...) eta guztiok daukagun erloju biologikoa. Zelulak bizitza osoan zehar zatituz doaz, baina zatiketa kopuru batera iristean erloju biologikoak hiltzera behartzen ditu zelulak. Zatitu ezin den zelulak ezingo du ehuna berritu; ondorioz, ehun hori ere zahartu eta hil egingo da.

Nahiz eta kanpo erasoak saihesteko bizitza osasungarria egiten saiatu (erre gabe, eguzkiak babestuz, kirola eginez...), erloju biologikoak beti joko du azken txirrina eta gainera, kontrolatu ezin ditugun faktoreak ere eman daitezke, arrazoi garbirik gabe tumoreak garatzen dituztenak, adibidez.

Gizartea zahartzen ari dela nabarmena da. Datu horiek ikusita, agintarien helburua, gastu sozialaz gain, prebentzioa ere bada. Nola bizi gehiago eta hobeto?

Rikardo Arriolaren esanetan “Elikagaiak produzitzeko, lurra substantzia kimikoekin kutsatzen badugu, geu ari gara kutsatzen; produkzio bideetan kaosa txertatzen badugu, kaosa jango dugu. Gure gorputzean substantzia kimikoak sartzen baditugu, gure gorputza gerra-biologian sartuko da”.

Gizakion kasuan gerra-biologia hori martxan jar daiteke arriskuan gaudela pentsatze hutsarekin. Horra hor norberaren psikologiak osasunean izan dezakeen eraginetako bat. Horretan beste espezieengandik bereizten gara. Lehoia ikustean alerta egoeran jartzen da zebra –odolaren presioa igotzen zaio, arnasa azkarrago hartzen hasten da, azken finean, bere gorputza arriskurako prestatzen da–: Gizakion kasuan, estres egoeran sar gaitezke, ezer ikusi gabe, pentsatze hutsarekin. Horregatik, bizitza luzatu nahi badugu, horrelako egoerak ahalik eta gehien saihestu behar dira.

Elisabeth Pombo. Argia aldizkaria. Moldatua.

GALDERAK

0. Zein komunikabidetatik hartuta dago testu hau?
- a) Argia aldizkaritik.
 - b) Berria egunkaritik.
 - c) Habe aldizkaritik.
6. Gorputza osatzen duten ehunak zahartu egiten dira...
- a) organo horiek berritzen dituzten zelulak zahartzen direlako.
 - b) organo horiek zelulak berritzen ez dituztelako.
 - c) zelulak ez direlako organo horiek berritzeaz arduratzen.
7. Zelulak bizitzan zehar zatitu egiten dira eta zatitzen badira,
- a) ehuna hil egiten da.
 - b) ezin da ehuna berritu.
 - c) ez da ehuna zahartzen.
8. Bizitza osasungarria...
- a) eramaten bada, erloju biologikoa moteltzen da.
 - b) eraman arren, erloju biologikoak txirrina jotzen du.
 - c) eramaten bada, tumoreak ez dira garatzen.
9. Gizartea zahartzen ari denez,
- a) gastu soziala eta prebentzioa dira agintarien helburuak.
 - b) gastu soziala da agintarien helburua.
 - c) prebentzioa da agintarien helburua.
10. Psikologiak eragina du osasunean...
- a) eta arriskuan gaudela pentsatzen badugu, estresatu ahal gara.
 - b) eta estresatzen bagara, bizitza luzatuko dugu.
 - c) eta beste espeziengan ere bai.

Galderak	0	6	7	8	9	10
Erantzunak	A					

HIRUGARREN ARIKETA. (5 puntu)

Testu honetan 5 hutsune daude. Zazpi aukera eskaini zaizkizu. Hutsune bakoitzari dagokiona aukeratu ondoren, osatu testua. *0 zenbakia* adibidea da, eta bi aukera sobran daude.

Internet

Zer da Internet?

Interneti deitzeko _____(0)_____ sarea da. Internet mundu osoan zehar interkonektaturiko ordenagailu-kopuru handi batez osaturik dago, telekomunikazio azpiegitura zabal baten bitartez, eta mota desberdinetako _____(11)_____ posible egiten du: testua, irudiak, soinua, etab.

Gaur egun, Internetek munduan ehunka milioi erabiltzaile dauzka eta zifra _____(12)_____ gehitzen doa.

Interneten bitartez hurrengo hauek egin ditzakegu: postak bidali, munduko edozein tokitako pertsonekin harremana izan, heziketa-zentroetan ikasi, liburutegiak bisitatu, edonolako produktuak erosi, bidaia bat antolatu eta horrela, abar luze bat. Hau guztia, _____(13)_____, urteko hirurehun eta hirurogeita bost egunetan zehar.

Ikus dezakezunez, Internetek ez du atsedunik hartzen eta egunero, _____(14)_____ sarearen bitartez egin ditzakegun gauzak, gure saguaren mugimendu bakarrez.

Nola dago osatuta sarea?

Esana dugu sarea _____(15)_____ ordenagailuen multzoa dela, baina, zein ordenagailuz ari gara? Funtsean, eremu lokaleko sare batean (LAN) bi eratako ordenagailuak ditugu: bezeroak eta zerbitzariak.

Bezeroa, zerbitzari izeneko beste sistema indartsuago baten zerbitzuak jasotzen dituen ordenagailua da.

Zerbitzariak ordenagailu bezeroentzat funtzio komunak administratzeaz arduratzen den ordenagailua da. Zerbitzariak informazioa biltegitzeko eta prozesatzeko gaitasun handiagoa dute.

AUKERATZEKO SINTAGMA EDO ESALDIAK:

A. eguneroko

B. eguneroko hogeita lau orduetan

C. egunez egun

D. elkarrekin konektatuta dauden

E. erarik ohikoena

F. gero eta gehiago dira

G. informazioa trukatzea

H. sistema indartsuagoa

Hutsuneak	0	11	12	13	14	15
Erantzunak	E					